

Ondarroako Udala

IRAGARKIA

Udal Jarduerak egin edo Zerbitzuak Emateagatiko Prezio Publikoak arautzen dituen Udal Ordenantza 2009ko urriaren 26ko Udabatz Osoak hasiera batean onetsia eta 2009ko abenduaren 3ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan ondoren jendaurreko epean zehar erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin-betikotzat hartua da Ordenantza horren onespren erabakia, berau, Udaletako Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 16.4 artikuluari jarraituz, oso-osorik iragarriko delarik. Ondarroan, 2010eko urtarrilaren 13an.—Udalburua, Félix Aranbarri Urizarbarrena

UDAL JARDUERAK EGIN EDO ZERBITZUAK EMATEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

1. artikulua.—Oinarria eta izaera

Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 44. artikuluan jasotakoaren arabera, eranskinean zehaztutako jarduerak egin edo zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak ezartzen dira, ordenantza honetan jasotako arauekin bat etorritz.

2. artikulua.—Kontzeptua eta zerga-egitatea

1. Ondarroako Udalaren prezio publikoak izango dira, ordenantza honen ondorioetarako, eranskinean azaldutako jarduerak egin edo zerbitzuak emateagatik ordaintzen diren diru-kontraprestazioak, zuzenbide publikoaren araubidean egin direnak, administratuek euren borondatez eskatu badituzte, sektore pribatuak ere zerbitzu edo jarduera horiek egin arren.

2. Prezio publikoaren zerga-egitateak izango dira honako hauek:

- a) Antzerki, ikuskizun, ekitaldi eta erakusketetarako sarrerak.
- b) Gizarte, kultura eta aisialdi-jarduerak.
- c) Udalak antolatutako ikastaro, lantegi, jardunaldi, mintegi eta jardueretan izena ematea eta/edo parte hartzea.
- d) Udal-argitalpenak saltzea eta beste zerbitzu batzuk ematea udal-bulegoetan edo gainerako instalazioetan.

3. Prezio publikoen ezarpena zabaldu ahal izango da Udal honek emandako beste zerbitzu edo jarduera batzuetan, betiere Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 21.1. artikuluan zehaztutako baldintza bat ere betetzen ez bada.

3. artikulua.—Zenbatekoa

1. Prezio publikoen zenbatekoak, gutxienez, emandako zerbitzuaren edo eginiko jardueraren kostua estali beharko du.

2. Horrela gomendatzen duten gizarte, ongintza, kultura edo interes publikoko arrazoiak daudenean, erakundeak aurreko atalean aurrez ikusitako mugatik beherako prezio publikoak ezarri ahal izango ditu. Kasu hauetan, erakundearen aurrekontuetan dagozkion zuzkidurak esleitu beharko dira emaitzako diferentzia estaltzeko, diferentzia hori egongo balitz.

4. artikulua.—Ordaindu behar dutenak

1. Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaindu behar dituzte Ondarroako Udalak eman edo egiten dituen zerbitzu eta jardueren onuradun diren pertsona fisiko edo juridikoek, bai eta Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 34.3. artikulua aipatzen dituen erakundeek ere.

2. Ondorio horietarako, onuraduntzat hartuko dira, eta, beraz, ordaintzera behartuta egongo dira, prezio publikoen arrazoi diren zerbitzu, jarduera edo prestazioen eskatzaileak.

5. artikulua.—Oinarriak, tasak eta zenbatekoak

Ordenantza honetan araututako prezio publikoengatik aplikatu behar diren tarifak eranskinean jasotakoak dira.

6. artikulua.—Ordaintzeko beharra sortzea

1. Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko beharra zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten den unetik aurrera sortzen da. Hala ere, udalak aurretiko gordailua eskatu ahal izango du, zenbateko osoarena edo zati batena.

2. Ondasunak edo produktuak merkaturatzen badira, ordaintzeko beharra prestazioa ematen den unean sortzen da.

7. artikulua.—Kobratzea

1. Zenbateko galdagarriak eskatutako edo eginiko zerbitzu edo jarduera bakoitzarengatik ordainduko dira, eta dagokion epigrafean adierazitako zenbatekoak ezin izango dira murriztu.

2. Prezio publiko hauengatik bildutako sarrerak Udal Diruzaintzan sartuko dira, eta dagokion arduradunak egin diren abonuen frogagiria edo bikoiztua aurkeztu beharko du.

3. Prezio publiko hauengatik zorrak premiamenduzko administrazio- prozeduraren bidez eskatu ahal izango dira, indarrean dagoen araudiak ezarritako forma eta epeak betez.

8. artikulua.—Diru-sarrerak itzultzea

1. Prezio publikoa ordaintzera behartuta dagoenari egotzi ezin zaizkion kausengatik zerbitzua ematen ez bada edo jarduera egiten ez bada, bidezkoa izango da dagokion zenbatekoa itzultzea, hurrengo atalek zehazten dutenaren arabera.

2. Zenbatekoa zati batean eta prestazioa zein neurritan eman den baldintzatzen duten faktorearen, intentsitatearen edo denboraren araberako proportzioan itzuliko da. Ordaintzeko beharra sortu ez bada, aldiz, zenbateko osoa itzuliko da.

3. Meteorologia-kausengatik edo ezinbesteko beste kausa batzuegatik egiten ez diren ikuskizunak direnean, udalak, trukean, beste saio baterako sarrerak eman ahal izango ditu.

9. artikulua.—Organo eskuduna

Prezio publikoak ezarri edo aldatzea udalaren osoko bilkurari dagokio; hala ere, tokiko gobernu batzarrari eskuordetu ahal izango dio, indarrean dagoen araudiaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honek jasotzen ez duenerako, honako hauetan xedatutakoa beteko da: 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Tokiko Ogasunei buruzkoa; 2/2005 Foru Arau Orokorra, martxoaren 10ekoa, Zergei buruzkoa; 4/1990 Foru Araua, ekainaren 27koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren tasa, prezio publiko eta beste zerga-baliabide batzuei buruzkoa.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean behin betiko argitaratu eta biharamunean, eta indarrean jarraituko du Ordenantza aldatzea edo indargabetzea erabaki bitartean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da Ondarroako Udal Liburutegiaren zerbitzuak emateagatiko tasa arautzen duen zerga-ordenantza, bai eta ordenantza honetan ezarritakoaren aurkakoak diren xedapen guztiak ere.

ERANSKINA

Berdintasun arloa

- 1. epigrafea: Antzerki, ikuskizun, ekitaldi eta erakusketetarakosarrerak.
 - 1. Jarduerak (antzerkiak, kontzertuak...), gehienez: 3,00 euro
- 2. epigrafea: Gizarte-, kultura- eta aisialdi-jarduerak.
 - 1. Udako kanpaina (gazteentzako autobus-zerbitzua), gutxienez: 1,50 euro.
- 3. epigrafea: Udalak antolatutako ikastaro, lantegi, jardunaldi, mintegi eta jardueretan izena ematea eta/edo parte hartzea.
 - 1. «Emakumeentzat Jabekuntza Eskola» (oinarrizko errenta jasotzen dutenek %50eko deskontua izango dute)
 - Ikastaro laburrak, gehienez: 5,00 euro.
 - 20 ordutik gorako ikastaroak, gutxienez: 10,00 euro.
 - Hiru hileko ikastaroak edo hortik gorakoak, gutxienez: 10,00 euro.
- 4. epigrafea: Udal-argitalpenak saltzea eta beste zerbitzu batzuk ematea udal-bulegoetan edo gainerako instalazioetan.
 - 1. «Sarekonpontzaileak» dokumentala: 3,00 euro.

Euskara arloa

- 4. epigrafea: Udal-argitalpenak saltzea eta beste zerbitzu batzuk ematea udal-bulegoetan edo gainerako instalazioetan.
 - 1. Liburuak
 - Portu Koplak: 5,00 euro.
 - Augustin Zubikarai II. Errepublikako idazlanak eta Ondarroa: 5,00 euro.
 - Augustin Zubikarai: herri euskararen zaindaria (biografia): 5,00 euro.
 - 2. CDak
 - Hondarretik Ondarroara (Zea Mays): 3,00 euro.

Turismo bulegoa

— 4. epigrafea: Udal-argitalpenak saltzea eta beste zerbitzu batzuk ematea udal-bulegoetan edo gainerako instalazioetan.

1. Bideoak (VHS)

- «Itxaso eta Lurraren Bitartean»: 6,00 euro.

2. DVDak

- «Barne Barnetik»: 8,00 euro.
- «Sare Konpontzaileak»: 3,00 euro.
- «Ondarroako Hiribilduaren 677.urteurrena»: 8,00 euro.

3. Postalak: 0,25 euro.

4. Pin-ak

- Koloredunak: 1,50 euro.
- Kolorerik gabeak: 1,00 euro.

5. Musika (CD)

- «Euskal Herriko organoak»: 10,00 euro.

6. Liburuak

- «Ondarroa 2006»: 10,00 euro.

7. Maketak

- Handiak: 15,00 euro.
- Txikiak: 6,00 euro.

Kultura arloa

— 1. epigrafea: Antzerki, ikuskizun, ekitaldi eta erakusketetarako sarrerak.

1. Kultura Arloak antolatutako kultura-jarduerak, gehienez: 3,00 euro.

Liburutegia

— 4. epigrafea: Udal-argitalpenak saltzea eta beste zerbitzu batzuk ematea udal-bulegoetan edo gainerako instalazioetan.

1. Kontrol-inprimagailuaren bidez inprimatu beharreko agiriak (gehienez 20 orrialde)

- Zuri-beltzeko orrialdea: 0,08 euro.
- Koloretako orrialdea: 0,25 euro.

2. Interneterako konexioa (gutxienezko konexio-denbora ordu erdi)

- Ordu erdi: 1,20 euro.
- Liburutegiko bazkideek, ordu erdi: 0,85 euro.

3. Posta elektronikoa (posta Interneteko doako orrialdeen bidez bakarrik erabili ahal izango da)

Udal bulego edo instalazio guztiak

— 4. epigrafea: Udal-argitalpenak saltzea eta beste zerbitzu batzuk ematea udal-bulegoetan edo gainerako instalazioetan.

1. Fotokopiagailua erabiltzea

- DIN-A4 orri bakoitza: 0,07 euro.
- DIN-A3 orri bakoitza: 0,10 euro.